

ABA TXIKI

aurkezten du

NI FÚ, NI FÁ #



Enrique Vianak idatzitakoa

Gida didaktikoa - Irakaslearen koaderno
Carlos Imaz - 2010 eko otsaila



SARRERA GISA	3
IKUSKIZUN HONEN ARRAZOIA	4
METODOLOGIA. Gida didaktiko honi eta irakaslearen koadernoari buruz	6
HEZKUNTZA HELBURUAK	8
EDUKIAK	8
IKASLEAREN KOADERNOAREN SARRERA	11
“NI FU, NI FA #” OSATZEN DUTEN MUSIKA- PASARTEEN ZERRENDA	12
ENTZUTEKO GIDA	14
1. JARDUERA- USTEKABEKO MUSICA (5. orrialdea)	14
2. JARDUERA. ABESTIAK (9. orrialdea).....	20
3. JARDUERA. PROTAGONISTENTZAKO MUSIKA (14. orrialdea).....	26
4. JARDUERA. 1+1 BI BAINO GEHIAGO DENEAN (18. orrialdea).....	32
5. JARDUERA. GONAK ETA PRAKAK (21. orrialdea)	36
6. JARDUERA. OPERAK ETA OPERAK (25. orrialdea)	41
GLOSARIOA	45



SARRERA GISA...

“*Ni Fu, ni Fa #*”, bere azpitoluak argitzen digun bezala, “*lau abeslarik, bi aktorek, bi funtzionariok, pianista batek... eta nahi den guztiak osatutako ikuskizun lirikoa da*”. Halako aurkezpenarekin erraz pentsa dezakegu ez dugula ohiko emanaldi bat ikusiko. Enrique Vianak, OLBE eta Arriaga Antzokiaren eskutik, gure belarrien gozamenerako eta 60 minutu eskasetan, operaren historiako unerik gogoangarrieneraiko batzuk ekartzen dizkigu, beste urrats bat eginda, irudimen-ariketa dibertigarri eta burutsu baten bidez, lirikaren mundua eta eguneroko pertsonaiak ohikoa ez den bezala aurrez aurre jarrita.

Zalantzarik gabe asko gara, besaulki-patioaren alde honetan opera emanaldi bat gozatzeko aukera izan ostean, geure buruari galdetu diogunak zer gertatu ote den oihala jaitsi ondoren friso artean, nora joan diren gau ahaztezina eskaini diguten pertsonak, nolakoak diren, nola pentsatzen duten, nola jokatzeko duten,... Nolako da euren lana? Zenbat lagunek egiten dute lan euren inguruan dena prest edukitzeko? Zenbat denbora behar da emanaldia antolatzeke? Badirudi, antzerkera askotan joanda ere, ikusle gisa zerbait galtzen ari garela, nahiz eta oso ondo ez jakin zer; agertokiak sorpresaz beteriko kutxa bat gordetzeko hondo bikoitza balu bezala, antzokiak ia jakin ezin daitekeen sekretu bat ezkutatu balu bezala.

Eta, hain zuzen, “*Ni Fu, ni Fa #*” ikuskizunak aukera hori eskaintzen digu: antzokiaren mundua ikusteko aukera, argiak oraindik piztu ez direnean; besaulki-patioa ikusleak noiz etorriko zain dagoenean, hutsik eta isilik; agertokia teknikarien joan-etorriekin jardueraz gainezka dagoenean eta protagonistak euren eszenak entsetzen urrunean entzuten direnean... “*Sartu eta ikusi, jaun-andreok!*” besterik ez genuke gehitu beharko lerro labur hauek bukatzeko. Hala ere, berriro ere libretora etorrira, nahiago dugu:

Sartu eta ikusi emanaldi hau, “*bere generoan bakarra, ez baitago besterik ...*”!



IKUSKIZUN HONEN ARRAZOIA

Gutxi esan dezakegu “*Ni Fu, ni Fa #*” ikuskizunaren argumentuaren inguruan, adin guztietako ikasleek jarraitzeko oso istorioa erraza den heinean. Gainera, ezin dugu ahaztu, askotan, ustekabearen osagaia lagungarri zaigula antzezlan bat ikustera joaterakoan, edozein motatakoa dela ere. Beraz, nahita hartzen dugu datu gehiegi ez emateko erabakia, eta gazteen esku utziko dugu ikusiko duten istorioaren benetako esanahia aurkitzea. Ondorioz, nahikoa izango da esatea agertokian antzoki batean topo egiten duten pertsonen protagonisturiko elkartzeko eta eztabaida dibertigarriak ikusiko ditugula, bertako hainbat langile, abeslariak izan nahi duten pertsonak eta musikari profesionalen bat, besteak beste. Era berean, pertsonaia hauek arketipoak dira, operaren munduaren inguruan gizartean dauden ikuspegi ezberdinen adierazle, egileak ikuspuntu berritzaile batetik hurbildu nahi dizkigunak.

Ikuskizun elitista eta itxiztat jo ondoren, XX. mendea benetako iraultza izan zen maila guztietan lirikaren munduarentzat. Batetik, hedabide publikoen bitartez, nagusiki irratia bitartez telebista agertu arte, musika mota ororen aurrekaririk gabeko hedapena lortu zen eta, ondorioz, musika eszenikoarena; bestetik, soinu euskarriari dagokionez izandako aurrerapen teknologiko ezberdinek (binilozko diskoak, kaseteak, CDak, DVDak,...) historian lehen aldiz ahalbidetu zioten pertsona kopuru oso handiari musikaren bikaintasunaz gozatzea, etxetik atera gabe eta, esan ohi den moduan, “*eskatu ahala*” aukeratuta, eta garrantzitsuena, entzun nahi zuten unea aukeratu ahal izatea.

Aldi berean, eta operaren benetako gozamina zuzenean ikustean zetzala jakinda, teknologia berriek eszenografia lirikoaren iraultza ere sustatu zuten. Honela, ekoizpenak aro berri batean sartu ziren, berrikuntzak eta eklektizismoak ezaugarrituta. Era berean, ikusle kopuru gero eta handiagoak ahalbidetu zuen, lirikari eskainitako antzokien erreformen bidez, bitarteko berriak aplikatzeko beharrezko hobekuntza teknikoak izan

zitzaten. Informatikaren garapenak, eta beranduago garapen hau zentro profesionaletan aplikatzeak ekarri zuen aurrekaririk gabeko iraultzaren ondorioz, opera emanaldietako azpтитuluak publikoak ulertzen zuen hizkuntza batean jartzeak erabat lagundu zuen opera adin guztietako ikusleei hurbiltzen.

Eta adin guztietako ikusleen kontua nabarmentzen dugu, mugarren zerrenda honetan garrantzi handia baitu bai administrazioek, bai kultur erakunde eta ikastetxeek musika eszenikoa ikasleengana hel zedin egin zuten ahaleginak, mundu zoragarri honetara hurbiltzea ahalbidetuko zieten eduki didaktiko handiko programen bitartez.

Eta azken puntu honetan egiten du bat “*Ni Fu, ni Fa #*” lanaren ikuspegiak gazteengana heltzeko kezkarekin: ikusle gazteei opera ikuskizun bizia dela erakustea; operako musika ez dela zaharra; ez dela iragan erdi loriatsuan zaharkituriko eta estatus ekonomiko jakin bati loturiko artea. Ondoz ondoko eszenen bitartez, aktore eta abeslariak erakutsi egiten digute musikak, oro har, eta musika lirikoak, zehazki, masak erakarri dituen benetako kultur fenomenoetan (zinea, soinu-bandak, joera modernoagoko musikak) izan duen eragina, eguneroko xehetasunen bitartez, hain justu egunerokotasun horregatik askotan ikusi ere egiten ez ditugunak. Eta horregatik saiatzen da ikuskizuna garai honetan mundu osoan antzezten den musika eszenikoko edozein obrak berarekin daraman aberastasuna eta kultur ezagutza zabala islatzen.

Horrela, oso modu dibertigarrian aurkezturiko musika pasarteen bidez, beste begirada batez ikusten ditugu agian arreta jarri ez diegun musika eszenikoaren aspektu batzuk, arte lirikoaren ondarea behar bezala kokatzea ahalbidetuko digutenak.



METODOLOGIA. Gida didaktiko honi eta irakaslearen koadernoari buruz

Ikuskizunean entzun ahal izango dituzuen musika pasarteen inguruko ikuspegi zabalagoa izateko, hala nola horiek hainbat mailatan sakonago lantzeko, bai musika edukiei, bai izaera ezberdineko bestelakoei dagokienez, entzuteko gida oso berezi bati ekingo diogu, ikasleen hezkuntza beharretara egokitzen dela uste duguna.

Jakina, ikuskizunak hartzen duen adin-tarte zabala ikusita, 8-14 urte bitartean, ikasle guztiek ezin izango dituzte gidako galderak erantzun. Hala ere, aukera bat galderen erantzunak ematea eta adierazitako pasarte entzutean arreta jartzea izango litzateke, gida honen bukaeran dauden ariketa errazenek lagunduta. Edonola ere, zuen esku utziko dugu egokiagoak iruditzen zaizkizuen ariketak aukeratzea.

Ildo beretik, euskarazko itzulpenean erabilitako hizkera ahalik eta ikasle-kopururik handienak uler dezan erraztu da. Beraz, esamolde batzuk sinplifikatuta egon litezke. Gidako pasarte ugartan testua etzanda aurkituko duzue. Baliabide hau erabiliko dugu esku artean dugun gaiaren ikuspegi zabalagoa eskaini nahi duen irakaslearentzako informazio baliagarria gehitzeko, **IKASLEAREN KOADERNOAN JASOTA EGONGO EZ DIREN** testuak izango baitira.

Gainetik berraztertuko ditugu gidako aspektu nagusiak: hasieran, lortu nahi dituen hezkuntza helburuak zein edukiak jasotzen ditu; aurrerago, kontzeptu edukiak azkarrago ikusi ahal izango dituzue koadro batean, hala nola ikuskizunean dauden abestien zerrenda. Hirugarren atal batek entzuteko gida bera jasotzen du, alboan hainbat ohar dituela ikasleen testua aberasteko, hala nola adin txikiagokoentzat pentsaturiko azken ariketa batzuk.

Jakina, ia musika pasarte guztietan tesituraren araberako pertsonen ahotsen sailkapenaren eta orkestra osatzen duten hainbat instrumentu-familien aipamenak agertuko dira, eta zehaztuta ez datozen musika eszenikoaren oinarritzko beste osagai batzuenak ere. Horien guztien glosario txiki bat gidaren bukaeran duzue. Espero dugu

material hau guztia zuen gustukoa izatea eta ikuskizunari dagokionez ahalik eta probetxu gehien atera ahal izatea.

JARDUERA OSAGARRIAK

Entzuteko gidan proposaturiko ariketaren bat zailegia iruditzen bazaizue, antzerkian entzuteko aukera izango duzuen abestiekin ere lotutako batzuk gehitzen ditugu, zeuen ikasle guztiengana iriste aldera.

Era berean, parentesi artean ikaslearen koadernoan jarduerari dagozkien orrialdetako zenbakiak aurkituko dituzue.



HEZKUNTZA HELBURUAK

- Ikaslea, burutuko duen jardueraren gainean lehen unetik ahalik eta arreta gehien jar dezan sentsibilizatzea eta prestatzea.
- Pertsonen ahotsen sailkapenaz harago, musika eszenikoaren oinarrizko egiturarekin lotutako funtsezko kontzeptu batzuk eta horiekin lotutako exekutatzaileak ezagutzea.
- Musika eszenikoaren argumentuari musika instrumentuek ekar diezazkioketen hainbat efektu bereiztea eta musika idazketako aspektu teknikoekin lotu ahal izatea.
- Orkestra tinbre ezberdinak barneratzea, lehen une batean instrumentuak bereizteko, eta ondoren, euren arteko konbinazio ezberdinek sortzen dituzten efektuei erreparatzeko.
- Emanaldia ikusita, eskuraturiko oinarrizko kontzeptuak pixkanaka ikastea eta barneratzea.
- Emanaldi ostean eskuraturiko ezagutzak baloratzea, etorkizunean praktikan jarri ahal izateko.

EDUKIAK

Kontzeptuzkoak

- Ustekabeko musika kontzeptuaren eta opera emanaldiaren narrazioari egiten dion ekarpenaren ulermena.
- Operako pertsonaiei aplikaturiko musika motiboa eta horrek musika eszenikoa ulertzeko duen eraginaren ezagutzea.
- Musika forma “klasiko” gisa ahapaldi egiturazko abestiaren azterketa, hainbat musika pasarteren bidez eta egungo musikan daukan aplikazioari dagokionez.
- Errezitatibo, aria eta kabatinen arteko alderaketa, opera bateko musika estilo ezberdinak ezartzeko.
- Duo, hirukote, laukote, boskote eta kontzertante kontzeptuen ulermena, abeslari bakarlariarentzako ariaren hedapen gisa.

- Eszena osagaiari dagokionez, operari gehituriko hainbat tradizioen barneraketa eta castrato eta kontratenor terminoen ezagutza, tesitura bidezko pertsonen ahotsen sailkapenaren hedapen gisa.
- Musika eszeniko mota ezberdinen azterketa (opera serioa, opera handia, opera bufoa, opereta, zartzuela, musikala), ikasleari agertoki baterako sorturiko musikaren munduari buruzko ikuspegi orokorragoa emateko.

Prozedurazkoak

- Musika pasarteak arretaz entzuteko ohituraren garapena.
- Ohitura horren praktika, ikaskuntzara bideraturiko ereduak jarraituta.
- Galdetutakoaz jabetzeko entzumenezko sentsibilitatearen garapena. Entzumenezko oroimenaren entrenamendua.
- Kontzeptuen arteko harremana eta inprobisazioa bezalako bitarteko kognitiboen estimulazioa.

Jarrerazkoak

- Ikas-prozesuan kontzentrazioak duen garrantziaz jabetzea.
- Bideraturiko galderen erantzunak arrazoitzerakoan erantzukizuna sustatzea.
- Nork bere buruaren kritika –aurrena- eta besteekiko kritikaren balorazioa, betiere era konstruktiboan, aurrerapen pertsonalaren funtsezko faktore gisa.
- Besteen iritziekiko errespetua eta horien balorazio positiboa, gaiaren inguruan norberaren ikuspegia aberasteko baliabide gisa, baita garapen pertsonalerako osagai garrantzitsu gisa ere.
- Antzokia bezalako gune publiko batekiko errespetua, besteekin partekatu beharrekoa, baita antzezlan bat ikustea ahalbidetzen duten profesional ugari egindako lanarekiko begirunea ere.
- Egindako lanaren balorazioa ikas-prozesuaren amaieran.

JARDUERA	EDUKIAK	MUSIKA ZATIAK
1	Ustekabeko musika	Wagner. TANNHÄUSER: Gonbidatuen korua
2	Ahapaldi egiturazko abestiak. Baladak eta koplak	Offenbach. HOFFMANEN IPUINAK: Kleinzachen balada. GEROLSTEINEKO DUKESA HANDIA: Sablearen koplak
3	Errezitatiboa, aria eta kabatina	Gounod. FAUSTO: Bitxiaren errezitatiboa eta aria. Rossini. SEVILLAKO BIZARGINA: Figaroren kabatina.
4	Duoa, hirukotea, laukotea, boskotea eta kontzertantea	Bizet. PERLA-ARRANTZALEAK: Tenorraren eta baritonoaren arteko duoa Offenbach. HOFFMANEN IPUINAK: Sopranoaren eta mezzosopranoaren arteko duoa
5	Emakumeek antzezturiko gizonaen paperak	Mozart. FIGAROREN EZTEIAK: Mezzosopranoaren aria
6	Opera serioa, opera handia, opera bufoa, opereta, zartzueta, musikala	Auber. FRA DIAVOLO: Hirukotea Donizetti. IL CAMPANELLO: Baritonoaren eta baxuaren arteko duoa eta amaiera

IKASLEAREN KOADERNOAREN SARRERA

Agertokitik datorren ahots bat entzuten da...

“Ni Fú, Ni Fá #” Eta zer da hori? Azala ikusi ostean, suposatzen dugu gu ikustera etortzen zaren egunean antzokian zer ikusiko duzun galdezka ari zarela; edo, agian, nortzuk agertuko diren agertoki gainera, ordubetez zure arreta bereganatzen saiatzeko asmoz...

Beno, ez gaitezen urduri jarri. Denbora honetan guztian itxaroten egoteko gauza izan bazara, beste egun gutxi batzuk ez dira gehiegi izango. Egia esateko –eta gure artean gera dadila- ez dugu ezertxo ere esateko asmo izpirik. Ez litzateke sorpresa bat izango, hala egingo bagenu. Itxaron beharrekoa itxarongo dugu oihala jaso eta aurrez aurre ikusi arte.

Momentuz, nahiko lanpetuta gabiltza etortzen zarenean dena prest egon dadin..., itxaron une batez, mesedez... Oihal hori atzerago jarri behar da! Eta aulki hori! Nora zoaz aulki horrekin?... Bai, barkatu... Prestaketak bukatzen ari garela niotsun, beraz, presta zaitetz oso ondo pasatzeko.

Bide batez, hemen gaudenez, zerbait egin zenezake gugatik: musika apur bat entzun. Beste mundukorik ez, ezta? Atsedena, edateko zer edo zer, erritmo pixka bat... beno, esaten didate janaria eta edaria hobe izango dela geroko uztea. Horrela hobeto kontzentratuko zara... Bestalde, musikaz ezta kezkatu ere, geuk aukeratu dugu zure partez. Espero dugu gustatzea. Badakigu ez dela gauza bera ontziratuta edo zuzenean entzutea. Baina lasai, ziur etortzen zaren egunerako mundu guztiak ikasi duela bere zatia... edo horretan nago.

Bien bitartean, musika lanen zerrenda bat aurkitu dut hemen... esan didate horrela erraz aurkitu ahal izango dituzula... Demontre, aulki hori! Itxaron, lagunduko dizut eta!”

“NI FU, NI FA #” OSATZEN DUTEN MUSIKA- PASARTEEN ZERRENDA

- 1.) Richard Wagner - *Tanhäuser* –II. ekitaldia, Gonbidatuen korua: “*Freudig Begrüssen*”. <https://www.youtube.com/watch?v=BD7pcUB8Q7w>
- 2.) Jacques Offenbach - *Hoffmanen ipuinak* –I. ekitaldia, “*Kleinzachen balada*”
Interneten: <http://www.youtube.com/watch?v=7mKJDIZWJZU>
- 3.) Gerolsteineko dukesa handia –I. ekitaldia, Sablearen koplak: “*Voici le sabre de mon père*” <https://www.youtube.com/watch?v=67MorQBfalk>
- 4.) Charles Gounod - *Fausto* –I. ekitaldia, Bitxien errezitatiboa eta aria: “*O Dieu, que de bijoux...Ah, je ris de me voir si belle*”
Interneten: http://www.youtube.com/watch?v=B3VXYNTbk_Y
- 5.) Gioacchino Rossini - *Sevillako bizargina* –I. ekitaldia, Figaroren kabatina: “*Largo al factotum*”
Interneten: <http://www.youtube.com/watch?v=CmAmC6spMH8>
- 6.) Georges Bizet – *Perla-arrantzaleak* –I. ekitaldia, Nadir eta Zurgaren duoa: “*Au Fond du Temple Saint*”
Interneten: <http://www.youtube.com/watch?v=4tLrPVkfcIQ>
- 7.) Jacques Offenbach - *Hoffmanen ipuinak* – II. ekitaldia. Barkarola: “*Belle nuit, ô nuit d’amour*”
Interneten: <http://www.youtube.com/watch?v=3DVkGTbIBR0>
- 8.) W.A. Mozart - *Figaroren ezteiak* – I. ekitaldia, Cherubinoren aria: “*Non so più cosa son, cosa faccio*”
Interneten: <http://www.youtube.com/watch?v=feeBt0lGbQ0>

9.) Daniel-François Aubert - *Fra Diavolo* –I. ekitaldia, Hirukotea: “*Bravi, bravi, bravi!*”

10.) Gaetano Donizetti - *Il Campanello* – “*Mio signore venerato*” duoa

Interneten: <http://www.youtube.com/watch?v=OfMEX9vLPLY>

11.) Gaetano Donizetti – *Il Campanello* – “*Finale*”

Oharra: *Gida honetako irudiak ikuskizun honetako pertsonaien zirriborroei dagozkie*



ENTZUTEKO GIDA

1. JARDUERA- USTEKABEKO MUSICA (5. orrialdea)

Kokatzeko

Zinean film bat ikusten duzunean, erreparatuko zenion musikak bertan duen garrantziari. Ia beti pantailan gertatzen ari dena azpimarratzen du, une gorenetan. Esaterako, beldurrezko filmetan ohikoa da musika altuagoa izatea norbait edo zerbait ustekabean agertzerara doanean; beste batzuetan musika melodiatsu edo eztiagoa entzuten dugu protagonisten arteko maitasun-eszena batekin batera doanean; edo zaratatsu eta kaotikoa bihurtzen da gertakizuna bizia denean. Batzuetan, film bat bere musikagatik gogoratzen dugu; aktoreen izena ahaztu badugu ere, nahikoa da norbaitek abesti nagusia kantatzea berehala atera dakigun izenburua. Bi kasuetan musika mota berezi batez hitz egiten ari gara: ustekabeko musika.

Bazenekien zinemako baliabide hauek musika klasikoaren mundutik datozela? XVI. eta XVII. mendeetan musikagileek holako efektuak bilatzen zituzten antzokiko agertokian gertatzen ari zena azpimarratzeko.

Jakina, hasieratik musika kontatzen ari zena imitatzen edo antzezten saiatu da, beraz, uste dugu apur bat handinahia dela funtzio hori operako musikari baino ez esleitzea. Izan ere, musikagile errenazentista ugari musikaren izaera “adierazgarri” hori transmititu zuten XV. eta XVI. mendeetako euren madrigal eta erlijio-lanetan. Honi dagokion adibiderik baliotsuena, agian, oratorioak dira, oro har asmo moralizatzaileko istorio erlijiozko bat kontatzen duten lanak eta, antzeztu ezin direnez, musikagileak euren musikaren bidez transmititzen saiatu ziren musikak hitzek baino gehiago esatea lortzen lagunduko zuten efektuak. Hala ere, XVII. mendean ezarri zituen Monteverdik egun ezagutzen dugun operaren oinarriak, “Orfeo” estreinatu zuenean (1600).

Baina XIX. sartu zuen Richard Wagnerrek, musikagile alemaniarrek, nobedadea: pertsonaia bakoitzari doinu bereizgarri bat ematea, orkestrak doinu hori jotzean, publikoak gertakizunak pertsonaia jakin batekin zuela zerikusia jakin zezan. *Teknikoki, musika motiboa berezko esanahia eta nortasuna dituen musika unitate txikiena da, edozein entzulek geroago agertuko diren eta oinarrian dituen pasarteekin harreman esanguratsuak ezartzea ahalbidetzen duena. Pertsonaia batentzat doinu oso bat sortzeko kontzeptua, bistan denez, musika motiboaren geroagoko hedapena da. Wagner ez zen izan baliabide hau erabili zuen lehena, Franz Liszt baizik, “Mazeppa” poema sinfonikoan, orkestrarako baino ez idatzita, pertsonaia batentzat abesti bat sartu zuelako, musikan leiv-motiv deritzona. Baina berdin onartzen da Wagner izan zela Liszten lehen ideia ezin hobeto garatu zuena“.* Ni Fú, Ni Fá #”-ko lehen abestian musika mota hau entzungo dugu.

Entzungo duguna

Richard Wagner- TANNHÄUSER –II. ekitaldia – Gonbidatuen korua: “*Freudig Begrüssen*”

Kontatzen duena

Richard Wagner Erdi Aroko kondaira batean oinarritu zen “*Tannhäuser*” konposatzeko, operak kontatzen dituen gertakizun batzuk, esaterako, kantu-lehiaketa, benetan gertatu baziren ere.

Tannhäuser, Erdi Aroko koblakari bat, sorterrira itzultzen da urte asko kanpoan eman ondoren. Bere lehengo jaunarekin, Hermann kondearekin, egiten du topo, eta harekin doazen beste bi koblakarekin ere, aspaldiko lagunak. Denek erregutzen diote gaztelura itzultzeko; berak zalantza egiten du, baina Elisabeth kondearen ilobaren izena entzuten duenean, eurekin joatea erabakiko du. Gazteluko kantu-egongelan berriz aurkitzen direnean, amodiozko adierazpen hunkigarria gertatuko da, baina gazteluko kantu-lehiaketa hasiko delako iragarpenak etengo du. Gazteluan jendetza hasiko da sartzen.

Tannhäuserrek Venusen erresuman egon dela azaldu bezain laster, denek baztertzen dute, baina Elisabethek egingo du bere alde. Azkenean Erromara erromes joateko aukera ematen zaio Aita Santuak barka dezan, baina honek uko egiten dio barkatzeari, bera bezalako norbaiti barkatu baino lehenago jaioko direla loreak bere makilan esanda. Atsekabetuta, Alemaniara itzuli eta Elisabethek bizitza emango du beragatik.

Ekintza honek miraria gertarazi eta loreak haziko dira Aita Santuaren makilan, ondorioz, Tannhäuser barkatua izango da lurrian eta zeruan. Antzezpenen arabera, Tannhäuser hil egiten da amaieran eta Elisabethekin elkartzen da; beste batzuetan, bizirik eta bakarrik geratzen da; eta askotan, Aita Santuak eta gotzainek oso gaizki bukatzen dute barkatzeari uko egin izateagatik.

Proposamena

Hizki-zopa (6. orrialdea)

Aurkitu honako hizki-zopa honetan Tannhäuserren musikagilearen, protagonistaren eta operako bi emakumezko pertsonaia nagusien izenak.

C	T	W	A	G	S	O	P	R	Q
F	A	V	H	M	V	I	D	H	R
O	N	E	F	W	E	G	L	T	J
P	N	O	T	A	N	N	H	E	C
M	H	X	E	G	E	E	W	B	I
R	A	D	V	N	C	L	O	A	S
H	O	G	E	E	A	I	F	S	U
T	A	K	N	R	N	S	W	I	N
W	V	R	I	O	V	U	I	L	E
T	A	N	N	H	A	U	S	E	R

Erantzuna:

								H	
				W				T	
				A				E	
				G				B	
			V	N				A	
				E				S	
				R	N			I	
						U		L	
T	A	N	N	H	A	U	S	E	R

Asmatuko duzu? (7. orrialdea)

Entzun Wagnerrek kantu-lehiaketaren hasierarako idatzitako musika. Irakurri arretaz galderak eta, musika entzun ondoren, saiatu erantzuten.

1.) Zein musika-instrumentuk iragartzen du ezbairik gabe zerbait garrantzitsua gertatuko dela? Uste duzu Wagnerrek moduren batean iradokitzen duela ehunka pertsonen mugimendua?

Tronpetek. Hiru aldiz burutuko dute goranzko musika motibo bera, suspense izaera duena (bere esaldiak ez du amaiera argirik). Hari-instrumentuen nota azkarrek bat-bateko mugimendua iradokitzen dute (entzuten ez dugun aurreko pasartearekin alderatuz gero) eta zerbait gertatuko dela iragartzen dute.

2.) Zein unetan hasten dira gonbidatuak sartzen? Oharra: Nahiko azkar gertatzen da eta ez dator bat korua abesten hasten den unearekin

Tronpeten hirugarren deiaren ondoren musika ikuskizunaren abesti nagusia hasten da, geroago koruak errepikatuko duena. Instrumentuek trinkotasunez aurkezturiko doinua da, hariaren sarrera mugituaren bestelakoa, horrela Wagnerrek kontraste handiagoa lortzen du.

3.) Doinu nagusiaren izaera, azkarra, serioa, alaia da? Jendea dagoen lekuarekiko urduritasuna, beldurra edo, agian, errespetua transmititzen du?

Doinu nagusia dotorea eta serioa da, egoerak eskatzen duen moduan, eta bat dator dukerriko biztanleek tradizioaren baitan dauden koblakari txapelketari eta gazteluko egongelari dioten errespetu eta benerazioarekin.

4.) Wagnerrek erabiltzen du musika baliabiderik gaztelura heltzen diren Agintari ezberdinak adierazteko?

Orkestraren sarreran ere erabiltzen duen baliabidea izan arren, doinu motiboak orkestrako familia ezberdinetara igarota, argiago ikusten da behin korua sartuta. Doinu nagusia gizonek abestuta aurkezten da. Geroago emakumeak sartzen dira, izaera apur bat arinagoko abesti osagarri batekin. Gizonezko eta emakumezko ahotsen arteko txandakatzea errepikatu egiten da, ikuskizunaren bukaera aldera euren sarrerak multzo trinkoa osatzera iristen diren arte.

Erreparatu, gainera...

...orkestrako instrumentuak eta pertsonen ahotsak uztartzeko moduari, ikuskizunaren bukaeran gazteluko egongela beteta dagoela sentitu daitekeelako

Bazenekien...

...Wagnerrek berak zuzendu zuela estreinaldia eta bere ilobak egin zuela Elisabethen papera?

...Wagnerrek 13 zenbakiaren zuen harreman bitxia? Richard Wagner izenak 13 hizki ditu, 1813an jaio zen eta urte horren zenbakiak batuz gero, 13 lortzen da. 1845eko apirilaren 13an estreinatu aurretik, Tannhäuser behin baino ez zen egin Parisen martxoaren 13an, eta ez zen berriz egin Frantziako hiriburuan berrogeita hamar urte beranduagora arte, 1895eko maiatzaren 13ra arte, hain zuzen. Wagnerrek 13 opera konposatu zituen eta 1883ko otsailaren 13an hil zen.

...denboraldi batez Wagnerren musika ez zela ondo baloratua izan eta Rossini musikagile ospetsuak ere zera esan zuela: “*onartzen dut musika honetan badaudela edertasun handiko minutu batzuk, baina jasanezinak diren ordu laurdenek banatuta*”?

Tannhäuserren antzezpen batzuetan, Venus eta Elisabethen paperak soprano berak jokatzen ditu. Tannhäuser izaki zalantzati gisa agertzen den bezala, Venusen erresumatik joandakoan erabaki egokia hartu duen ez dakiena, Elisabeth haren azken

salbazioa ahalbidetzen duen figura askatzailea da. Musikaren historiako pasarterik ezagunenetariko bat, eta ziurrenik ikasleek ezagutuko dutena, erromesen korua da, ikasleei ere entzunarazi ahal diezuen. Erromesak urrun entzuten dira bakarlari biek hitz egiten duten bitartean. Koruaren bigarren esku-hartzeak argi uzten du hurbilago daudela, agertokiko aurrealdera iristen diren arte, exekutatzaileen soinu-bolumena handituta. Bertsio osoa hemen entzun dezakezue:

<http://www.youtube.com/watch?v=LYOEqbYnebo>

Gogoratuko duzu

- Ustekabeko musika
- Musika motiboa



2. JARDUERA. ABESTIAK (9. orrialdea)

Kokatzeko

Egungo musikan arrakasta duten abesti guztien eskema aztertuko bazenu, gehienek testu ezberdineko ahapaldiak dituztela ondorioztatuko zenuke, aldatzen ez den edo oso aldaketa gutxi dituen errepika batekin. Egitura hori, musikan *musika forma* deritzoguna, eta duela hainbat mende eta izen ezberdinekin errepikatzen da. Bere jatorria “*Rondeau*” dantza frantsesean du, bertan abesti nagusi bat aldizka errepikatzen zen, musika-idea ezberdinak kontrajarrita. *Musikaren historian zehar ugariak izan dira herri mailan ezagunak egin diren Rondo egitura duten adibideak. Agian adibiderik ospetsuena W. A. Mozart eta Pianorako La Handian jotzeko sonatako “*alla turca*” rondoia dira, denok “*Martxa turkoa*” bezala ezagutzen duguna. Esteka honetan entzun dezakezue: http://www.youtube.com/watch?v=8iebndRX_FA*

Egungo abestiekin jarraituta, “balada” terminoa maitasunari buruzkoak diren eta denbora motel samarra izaten duten abestiak izendatzeko erabiltzen dugu. Hala ere, terminoa Erdi Aroaren bukaeratik dator, honela deitu baitzitzaion istorio bat kontatzen zuen konposizio poetikoari, zela maitasunezkoa, zela atsegina edo komikoa ere. Denborak aurrera egin ahala, balada bilakatu egin zen eta, garai jakin batzuetan, pertsona jakin baten bizitza osoaren edo egitate zehatzen kontaketaekin ere lotu zen. Aldi berean, literaturako konposizio hauetariko batzuei musika jarri zitzaien.

Bere egitura eta koplana oso antzekoak dira, tonu dibertigarriko abesti herrikoi laburrak, sarri garaiko tabernetan dibertitzeko eta denbora pasatzeko abestuak. *Errenazimentua eta barrokoa bereziki emankorrak izan ziren koplak erako abesti txikiei dagokienez. Normalean, batik bat Errenazimentuan, partituran behin baino ez ziren idatzita agertzen errepika eta ahapaldi bat hizki guztiekin. Hala ere, inoiz ez ziren modu berean abesten, zeuden instrumentu edo abeslari-kopuruaren arabera ahapaldiak eta errepikak osagai batzuk edo guztiak uztartuta abesten baitziren, konposizio mota honi partitura hutsean nabaritzen ez zen bizitasuna eta bat-batekotasuna emanda.*

Entzungo duguna

Jacques Offenbach

HOFFMANEN IPUINAK –I. ekitaldia- Kleinzachen balada.

GEROLSTEINEKO DUKESA HANDIA – I. ekitaldia- Sablearen koplak

Kontatzen dutena

“*Hoffmanen ipuinak*” operako istorioa Nurembergeko opera-antzoariaren ondoan kokaturiko garagardotegi batean hasten da. Jatorri ezberdineko pertsonak gau horretako ikuskizuna has dadin itxaroten ari dira. Haien artean Hoffman poeta dago eta, ikasle-talde batek eskatuta, Kleinzach deritzon pertsonaia bati buruzko abesti barregarri bat kantatzea erabakitzen du. *Operak Hoffmanen maitasunezko porrotak berrikusten ditu, maitasun idealaren bilaketan huts egindako bere hiru maitaleen bidez: Olympia, Giulietta eta Amelia. Stella da, ustez, poetarentzat egokia izan daitekeen haragi eta hezurrezko pertsona, bere ezinezko amodioak atzean utziz gero, baina azkenean Hoffmanek galdu egingo du. Poetaren maitasun idealaren aurpegi ezberdinak bezala, teoriko askok hiru paperak soprano berak jokatu beharko lituzkeela esaten dute, nahiz eta egun gailendu egin den, behar bezalako antzezpena lortzearen, paper bakoitzaren ahots baldintzek eskatzen dutela pertsonaia bakoitzaren berezitasunei egokitzen zaizkien hiru abeslari aritzea.*

“*Gerolsteineko dukesa handia*” lanean beti ondokoekin gerran dagoen dukerri bat gobernatzen duen emakumea ezagutuko dugu; gudarosteko jeneralek gerraren aitzakia baliatzen dute botere gehiago lortzeko eta dukesarengan eragin handiagoa izateko. Hala ere, badirudi agintari gazteari gehiago axola zaiola Fritz soldadu gaztea berarekin bai ala bai maitemintzea. Borrokan hastear daudela, dukesak zortearen kutun moduko bat den bere aitaren sablearen inguruko kanta bat abesten die soldadu guztiei. *Gerraren kontrako lan sutua izateaz gain, barregarria da ikustea dukesak gutiziatzen duen gizona, Fritz gaztea, izendatzen duela jeneral eta haren Estatu Nagusi osoaren erreakzioa, ez baitute onartzen eskarmenturik gabeko gazte batek eurei agintzea, unereren batean beraiek ere modu berean iritsi zirela euren karguetara jakinda ere.*

Proposamena

Bete hutsuneak (10. orrialdea)

Osatu testua hurrengo zerrendan aurkituko dituzun hitzekin. Gogoratu badaudela erabili behar ez dituzun lau hitz.

ABENTURAK

ABESTI

AHAPALDI

BALADAK

BORROKA

ERREPIKA

ISTORIO

KOPLAK

POESIA

_____ eta _____ bat kontaktzen duten eta _____ batek banaturiko hainbat _____ nahasten dituzten _____ mota berezi bat dira.

Erantzuna:

Baladak eta abestiak istorio bat kontaktzen duten eta errepika batek banaturiko hainbat ahapaldi nahasten dituzten abesti mota berezi bat dira.

Asmatuko duzu? (11. orrialdea)

Irakurri arretaz galderak eta saiatu erantzunak aurkitzen abesti biak entzun ondoren, lehenik “*Kleinzachen balada*” eta gero “*Sablearen koplak*”.

1-) Zein ahots kategoriakoa uste duzu dela Hoffman poetarena egiten duen abeslaria? Baritonoa, tenorra ala baxua? Eta dukesarena egiten duen abeslaria? Sopranoa, kontraltoa edo mezzosopranoa?

Hoffmanen pertsonaia tenor batek abesten du eta dukesarena mezzosoprano batek. Batzuetan zaila da pertsonaia bakoitzari zein ahots dagokion esatea, haren izaeraren arabera musikagileek oso arruntak edo ohikoak ez diren erregistroetara gidatzen baitituzte ahotsak. Esaterako, dukesa entzuten dugun musika pasartean soprano bat dela pentsa genezake. Bere ahotsa mantenduta nota baxuetara abeslariak garbi ematen duen bat-bateko jauziak bakarrik ematen digu gako egokia.

2.) Ezagutu al duzu Kleinzachen baladaren izaera barregarria ondorioztaraziko dizun hizkuntza baliabiderik?

Onomatopeiak: “krik-krak”, “klik-klak”... Badakigu Hoffman garagardotegian dagoela eta ikasleak entretenitzeko Kleinzachi buruzko alegia edo kondaira bat kantatzen duela. Hitzen izaera isekariaz gain, onomatopeiek oso ondo egiten dute bat abestiaren izaera arinarekin.

3.) Ezagutu duzu bi abestien egituran dagoen osagairik? Zenbat?

Abesti bietan koruak, modu batean ala bestean, bakarlariaren musika pasartearen amaiera errepikatzen du, garrantzi handiagoa emanda eta agertokian dauden gainerako pertsonaiak istorioko gertakizunean sartuta.

4.) Abesti hauek kantatzen diren unean gertatzen ari dena jakinda, egokiak iruditzen zaizkizu istorioaren unerako? Ondoriozta zenezake zein den musikagilearen helburua horrela egitean? Zer nolako izaera daukate? Ez badakizu, irakurri jarraian idatzita dagoen bi abestietako hitzen itzulpena. Aldatuko zenuke zure erantzuna?

Musika une bien egitura, abesteko eta gogoratzeko oso doinu erraza errepikatuta, bat dator gertakizunak deskribatzen duen unearekin: Hoffmanen kasuan, gizonek denbora pasatzen dute opera emanaldia hasteko zain. Sablearen koplak kasuan, dukesak borroka egingo duten soldadu guztientzat hitz egiten du. Hala ere, Offenbachek trebetasunez uztartzen ditu eskura dituen hainbat baliabide euren nortasuna eta asmoa emateko bi uneei. Horrela, “Hoffmanen ipuinak” lanean erdiko zatia ezabatu dugu, edukiak zehazte aldera. Zati horretan, Hoffmanen pertsonaia bat-batean serioagoa eta barnerakoiagoa bihurtzen da, non dagoen ere ahaztuta, eta maitasunean izan duen zorte eta esperientzia txarraren inguruan eldarniatzen hasten da. Ikasle batek ohartarazten duenean bakarrik itzultzen da jatorrizko doinura, guretzat hirugarren koplak edo ahapaldia dena abestuz. “Sablearen koplak” abestian, ordea, asmoa eta mintzaira oso ironikoak dira. Ez dago zalantzarik agintari buruarin eta eskarmenturik gabeko bat dugula aurrean, gerraren hasiera agintzeko kutun modura objektu zehatz bat behar izateaz haratago. Estatuburu gutxi zuzenduko litzaieke hain modu xalo eta naifean hiltzeko zorian egon litezkeen pertsonari, familia oroitzapen baten inguruan eta nahiko mizke hazitako neskatila batengandik datorrela dirudien hizkuntza batean.

*Eisenachen gortean!
Bazegoen munstro txiki bat
Kleinzach izenekoa!
Txano militarra zeraman,
Eta bere hankek Klik, klak!
Klik, klak! Klik, klak! egiten zuten!
Halakoa zen! Halakoa zen Kleinzach hori!*

*Konkorra zuen urdailaren ordezt!
Bere xirmendu-antzeko oinek
zaku batetik zetoze la ziruditen!
Bere sudurra tabakoz beltz zegoen,
eta bere buruak Krik, krak!
Krik, krak! Krik, krak! egiten zuen!
Halakoa zen! Halakoa zen Kleinzach hori!*

* * * * *

*Tori nire aitaren sablea
Eta joan borrokara adorezt;
Nik ondo dakit ez zarela maingua
Eta bihotza duzula.
Aita gerrara joatean,
Guda loriatsuaren atzetik,
Nire amak, Jaungoikoak gorde beza,
Mila aldiz jantzi zuen.*

Bazenekien ...

-...Hoffman poetak hainbeste miresten zuela Mozart, non musikagile austriarraren omenez bere hirugarren izenaren ordezt Amadeus jarri zuen?

-...Ernest Guiraudek hainbeste aldaketa egin zituela Offenbachen jatorrizko obran, non harrezkero operaren hainbat bertzio dauden, gertakizunen ordena ere aldatuta?

-...musikaren historiako kankanik ospetsuena, ziur behin baino gehiagotan entzun duzuna, Offenbachek konposatu zuela “*Orfeo infernuetan*” obrarako?

-...bere fantasiazko ipuinetariko beste batean Hoffmanek benetako gizakia zirudien Olympia deituriko panpina mekaniko bat deskribatzen duela eta gero, XX. mendeko literatura fantastikoan, robotak izango zirenen lehen adibideetariko bat dela?

-...“*Gerolsteineko dukesa handia*” lanak sekulako arrakasta izan zuela 1867an Pariseko Erakusketa Unibertsalerako estreinatzearen ondoriozt? Gertakizun horri esker, errege eta

estatuburu ugari joan ziren emanaldietara: Napoleon III. enperadore frantsesa, Galeseko printzea, Alexandro II. tsarra, Turkiako sultana, Portugalgo errege-erregina, Suediakoak...

-...garai hartan munduko herrialde ugarian zeuden gerra eta matxinada militarren kontrako protesta argia zela, hipokresiaren eta ezjakintasunaren kritika bat, eta salatzen zuela gaitasunik ez zeukaten pertsonak gobernu eta gudarosteko goi mailako ardurak bereganatzen zituztela?

Gogoratuko duzu...

- Musika forma
- Balada
- Kopla



3. JARDUERA. PROTAGONISTENTZAKO MUSIKA (14. orrialdea)

Kokatzeko

Opera bateko musika guztia ez dago modu berean idatzita eta ez du funtzio bera betetzen. Hitz egin dugu ustekabeko musikari buruz, orokorrean agertokian garatzen den gertaerari laguntzen diona. Koruak abesten duenean, opera bateko funtsezko beste osagaia izanik, ekintzaren une jakin bat azpimarratzeko edo istorioan bereziki garrantzitsua den zati bat nabarmentzeko egiten du. Protagonistek abesten duten musika ere aldatu egiten da esaten dutenaren arabera.

Pertsonaia batek gertatu zaion zerbait kontatzen digunean, edo beste pertsonaia batzuekin elkarrizketa bat duenean, nabarituko duzu musika errepikakorragoa dela eta mintzatutako hitzekin nolabaiteko antza daukala. Istorioa azkar gertatzen deneko zati horiek errexitatibo izena dute. Euren izaeragatik, gehiegi konturatzen ez garela gertatu ohi dira.

Hala ere, pertsonaiak bere sentimendu, nahi edo beldurren inguruan hitz egiten duenean, musika melodiatsuagoa bihurtu ohi da. DVD batean pausatzeko botoia eta istorioko denbora etenda geratuko balitz bezala da, protagonistek une hori sentitzen dutenaz mintzatzeko baliatuta. Momentu horiek, agian musika zatirik ezagunenak, aria izena dute.

Pertsonaiaren arazo edo sentimenduen aurreko jarrera muturreraino nabarmentzen bada (zoriontasun handia, beldur gehiegi, sumina, eromena), musika ere aztoratu egiten da eta, normalean, partitura nota azkar ugariz betetzen da, eta benetako erronka teknikoa izaten da. Abesti horiei kabatinak edo kabalettak deitzen zaie. Euren zailtasun eta ikusgarritasuna direla-eta, antzokira joaten diren ikusleek irrikaz itxaroten dituzte.

Azpisailkapen hau ariosoarekin osatu liteke, errexitatibo gisa edo horren osagaiak erabilia hasten den pasartea, baina, aurrera egin ahala, bere izaera gehiago hurbiltzen dena ariara, ildo melodiko nabariago batekin.

Jakina, aurreko sailkapenak opera bat ondoz ondoko saio nahiko itxien batuketa bihurtzea eragiten du, eta musika eszenikoaren garai jakin baten adierazgarria da. XIX. mendeak aurrera egin ahala, musikagileek operari obra osoaren izaera ematearen aldeko zaletasuna erakutsi zuten, eta beste ondorio batzuen artean, hain ezaugarri murriztailea baztertzea ekarri zuen. Holako operetan idazketa ezberdinen arteko mugak hautsi egingo dira eta zaila izango da esatea, kasu batzuetan ezinezkoa, aria edo errezitatio bat non hasi eta non bukatzen den.

Entzungo duguna

Gioachino Rossini –SEVILLAKO BIZARGINA –I. ekitaldia - Figaroren Kabatina:

“Largo al factotum”

Charles Gounod - FAUSTO –III. ekitaldia - Margaritaren errezitatio eta aria: *“O Dieu, che de bijoux... Ah, Je ris de me voir si belle en ce miroir”*

Kontatzen dutena

“Fausto” Goetheren poema batean oinarrituta idatzi zen obra da, desengainuak jota eta bizitzeaz nekatuta bere buruaz beste egiteko asmoa duen sendagile baten istorioa kontatzen du. Deabrua gaztetasuna, jakinduria eta gazte eder baten maitasuna promestuz agertzen zaionean, bere arima hiru gauza horien ordeztu ematea erabakitzen du. Geroago, eta Margarita gaztearen maitasuna lortzeko asmo tinkoarekin, Faustok bitxiz beteriko kutxa bat oparitzen dio. Musika zati ospetsuak neskatilak deskribatzen du atea ireki eta Faustok opari bidaltzen dizkion bitxiz beteriko kutxa eta ispilua aurkitzen ditueneko unea. *Imajina dezakegunez, Faustok Margarita lortzen duenean utzi egiten du, baita haurdun utzi ere. Margaritaren neba, arrebaren ohorea defendatu nahian, Faustoren eskutik hilko da. Margaritak, burua galduta, bere semea hilko du. Azkenean, kartzelan dagoela heriotzaren zain, Fausto itzuli egingo da berarekin eramateko, baina Margaritaren arima zintzoak barkamena eskuratu eta zerura igoko da, Faustok, indargabe, Mefistofelesek infernura daramala ikusten duen bitartean.*

“Sevillako bizargina” laneko protagonista Figaro da, Sevillako bizargin eta ezkontzagin famatua, jendeak berarengana jotzen baitu maite duen pertsonarekin ezkondu ahal izateko. Kabatina hau, agian historiako abestirik famatuenetarikoa, opera hasieran abesten da.

Istorioak Rosinaren maitasun-kontuak ditu hizpide; batetik, Basilio Jaunak emazte nahi du, bestetik, Almaviva kondea maite du, eta honek hamaika mozorro erabiliko ditu bere maitarekin Basilio jauna baino lehenago ezkontzeko, Figaroren laguntzari esker lortuko duena.

Proposamena

Hitz gurutzatuak (15. orrialdea)

Kokatu zerrendako hitzak bere lekuan gakoaz lagunduta (gaztelaniaz).

- | | | | | | |
|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|-----------------|
| <u>4 hizki</u> | <u>6 hizki</u> | <u>7 hizki</u> | <u>8 hizki</u> | <u>9 hizki</u> | <u>10 hizki</u> |
| Aria | Diablo | Barbero | Cavatina | Margarita | Recitativo |
| <u>5 hizki</u> | Figaro | Rossini | | | |
| Joyas | Gounod | Sevilla | | | |



Erantzuna:



Asmatuko duzu? (16. orrialdea)

Abesti biak entzun baino lehen, irakurri hurrengo galdera hauek eta gero saiatu erantzuten.

1) Asmatuko zenuke zein unetan aurkitzen dituen Margaritak bitxiak? Jakingo zenuke deskribatzen zein diren Rossinik Margaritaren harridura nabarmen uzteko errezeitiboan erabiltzen duen musikaren ezaugarriak?

0:23an, orkestrak lau akorde jotzen ditu bolumena bat-batean igota, eta hortik aurrera orkestrak soinu bat mantentzen du sopranoaren goikoari helduta, esaten duenean: “ Jainkoarren! Hauek bitxiak!”.

2.) Aria bera, goranzko musika zati bat aurretik duela, sopranoak ondoz ondoko bi nota azkar txandakutzen dituela hasten da. Badakizu zein izen duen musika baliabide horrek? Zerbait gogorarazten dizu? Esan zenezake izenaren arrazoia?

Musikan, txioa deitzen zaio elkarren ondoko bi noten txandakatze azkar eta errepikakorrari. Izena txorien kantuari ematen zaion bera da, bertatik baitator, duten antzekotasuna dela-eta.

3.) Ariaren erdialdean, Margaritak eskumuturrekoa eta lepokoa falta zaizkiola probatzeko esaten duenean, musikak izaera aldatzen du. Bere sentimenduei buruz hitz egiteari uzten diola eta gertaerak berriro aurrera egiten duela jakinda, nola izendatuko zenuke zati hori?

a) melodikoa b)errezeitua c)oso adierazkorra

Errezeitua. Zati hau 3:05etik aurrera hasten da. Egia esan, errezeitibo forma ezberdina da, musika akonpainamendua melodikoa baita zalantzarik gabe eta bakarlariaren esaldiek ere badute nolabaiteko linea. Hala ere, lotura gehiegirik gabeko eta etenaldi ugariz inguraturiko esaldi segidak zati “esanaren” edo errezeituaren ideia bultzatzen dute, bizitasunari dagokionez gorantz doana ariaren abesti nagusiaren errepikapenera arte.

4.) Esan zenezake zein ahots mota duen Figaro bizarginarena egin behar duen abeslariak?

Figaroren papera jokatzeko duen abeslaria baritonoa da. Bere erregistroa erdikotzat jo daiteke, nahiz eta hemen ikus dezakegun tenorrarenak diren eta, hala ere, baritono

liriko deritzonaren tesituraren baitan sartzen diren nota altuagoetaranzko goranzko jauzien zailtasuna.

5.) Pertsonaiak berari buruz baino ez duela hitz egiten uste duzu? Beste norbaiti buruz ari da? Nola jakin duzu?

Pasartea operako pertsonaia nagusiaren aurkezpena bada ere, eta nahiz eta denbora osoan bere buruari buruz hitz egiten duen, badaude hainbat une, non abeslariak, tinbrea eta idatzita dauden notak ere aldatuta, bizarginari deitzen dioten hainbat pertsona irudikatzen laguntzen duen. 2:24an aldaketa ikusten dugu, neskatilari eta jaunari buruz hitz egiten duenean. 3:20an “Figaro” bakoitzeko erregistro-aldaketak oso argiak dira, eta hori 3:50ean errepikatzen da.

Bazenekien...

-...Gounoden “*Fausto*” lanaren estreinaldia antzokiaren enpresariari esker izan zela arrakastatsua? Estreinatzeke egun gutxi falta zirela, oso sarrera gutxi salduta zeudenez, enpresariak oparitu egin zituen ia guztiak; laugarren emanaldirako mundu guztiak joan nahi zuen “*Sarrerak agortuta*” zioen kartela eskegitzea lortu zuen opera ikustera.

-...agian ezagutuko duzula Gounod “*Txotxongilo batentzako hileta-martxa*” lanagatik, mundu osoan ospetsua Alfred Hitchcock zine-zuzendari entzutetsuak egindako telesail baten aurkezpen sintonia izan zelako?

-...Hergék sorturiko Tintin pertsonaia ezagunaren hainbat komikitan Bianca Castafiore deituriko opera-ableslari bat agertzen dela, edonora aria famatu hau abestuz doana?

-...“*Sevillako bizargina*” bakarrik bi hilabetetan idatzi zela?

-...obertura musikagilearen beste bi obratan erabili zela operaren historiako famatuenetariko bat bihurtu aurretik?

-...operaren estreinaldia erabateko porrota izan zela garaiko beste musikagile baten (Rossini) aldekoen etengabeko oihu eta etenen ondorioz?

-...Rossini janari gozoaren oso zalea zela eta badagoela berak egindako eta bere izena daraman pasta errezeta bat?

Rossini bere bizitzan arrakasta eta zortea eduki zituen musikagile bakanetarikoa da. Oso gaztetatik aritu zen musikagile, 37 urterekin hartu zuen erretiroa eta, musika konposatzeari inoiz utzi ez bazion ere, bizitzaren gainontzekoa ahalik eta gehien gozatzen eman zuen, bilera sozialetara joanda eta Florentzia, Paris eta Frantziako landazabal artean.

Gogoratuko duzu...

- Errezitatiboa
- Aria
- Kabaletta eta kabatina



4. JARDUERA. 1+1 BI BAINO GEHIAGO DENEAN (18. orrialdea)

Kokatzeko

Operako abeslariak ez dute beti bakarrik abesten. Une askotan, istorioak aurrera egin ahala, pertsonaiak elkarren aurrean egoten dira, dela proiektu bati buruz eztabaidatzeko, dela lagun arteko elkarrizketa bat izateko, joandako garaiak gogoratzeko, maite duten pertsonari maite dutela esateko edota borrokan aritzeko. Une hauen izena parte hartzen duen pertsona-kopuruaren arabera izaten da: duoak, hirukoteak, laukoteak, boskoteak...

Ekitaldi baten bukaeran pertsonaia guztiek batera abesten badute, ikuskizunak kontzertante izena jasotzen du.

Ugariak duoak dira. Bi pertsonentzako aria moduko bat denez, pertsonaiek euren sentimenduak adierazten jarraitzen dute. Aria asko emakumezko eta gizonezko ahots banarentzat idatzi badira ere, orainoan bi emakumezko eta bi gizonezko abesturiko bi duo oso ospetsu entzungo ditugu.

Baliteke laukote ospetsuenetariko bat Rigoletoko IV. ekitaldikoa izatea, “Bella figlia dell’amore”, benetako maisulana, lau kantu-linea independente ikus baititzakegu (istorioari dagokionez, pertsonaia bakoitza posizio ezberdinean aurkitzen da), ezin hobeto bat egiten dutenak. Youtuben eskuragarri dago, lirikako figura handienetariko lauk abestuta: Luciano Pavarotti, Joan Sutherland, Isola Jones eta Leo Nuccik.

<http://www.youtube.com/watch?v=Q4UdG9CXz1I>

Entzungo duguna

Georges Bizet –PERLA-ARRANTZALEAK –I. ekitaldia –Nadir eta Zurgaren duoak:
“*Au fond du temple saint*”

Jacques Offenbach –HOFFMANEN IPUINAK –Giuletta eta Nicklausseren duoa:

“*Belle nuit, o nuit d’amour*”

Kontatzen duena

Aurretik hitz egin dugunez “*Hoffmanen Ipuinak*” lanari buruz, “*Perla-arrantzaleak*” lanaren argumentua kontatuko dizugu labur. Istorioa perla-arrantzaleen herri txiki bateko hondartzan hasten da. Denek onartzen dute Zurga buruzagi aukeratzea. Nadir, baso urrunetako ehiztaria da, Zurgak aspaldi ikusi ez duena, hura iristen denean biek joandako garaiak gogoratu eta elkarri nork bere bizitza kontatzen diote.

Nahiz eta elkarri betiko adiskidetasuna promestu, Leila agertzean hainbeste aldenduko dira, non Leilak eta Nadirrek osaturiko maitale-bikotea opera guztian zehar jazarria izango den. Teorian Leila, Bramako Apaiz Gorena, ezin zen inorekin maitemindu. Bere herriari zoritxarrak etortzen zaizkionean, berari botako diote errua. Azkenean, Zurgak emango du bizitza, maitaleek ihes egin ahal izateko.

Proposamena

Lotu hitz bakoitza bere bikotearekin (19. orrialdea)

Lotu ezkerreko zutabeko esamoldeak eskuinekoekin zuzenak izan daitezen.

Ahots zuriko duoa	Sopranoa, mezzosopranoa, tenorra, baxua
Ahots baxuko duoa	Sopranoa, mezzosopranoa, kontraltoa
Hirukotea	Tenorra, baritonoa
Laukotea	Sopranoa, mezzosopranoa, kontraltoa, tenorra, bari
Boskotea	Agertokiko abeslari guztiak
Kontzertantea	Sopranoa, mezzosopranoa

Erantzunak:

Ahots zuriko duoa	Sopranoa, mezzosopranoa, tenorra, baxua
Ahots baxuko duoa	Sopranoa, mezzosopranoa, kontraltoa
Hirukotea	Tenorra, baritonoa
Laukotea	Sopranoa, mezzosopranoa, kontraltoa, tenorra, bari
Boskotea	Agertokiko abeslari guztiak
Kontzertantea	Sopranoa, mezzosopranoa

Asmatuko duzu? (19. orrialdea)

Abesti biak entzutean egon zaitez adi galdera hauei erantzuteko.

1.) Bi kasuetan protagonismo berezia duten bi instrumentu entzungo dituzu. Haietariko bat, gainera, ez da oso ohikoa izaten. Jakingo zenuke esaten zeintzuk diren?

Zeharkako txirula eta harpa. Denbora guztian bertan badaude ere, argi eta garbi nabarmentzen dira “Au fond du temple saint”-ko 0:32an, lehenik tenorrari laguntzen eta gero baritonoari. Hau hasten denean, gainerako zurezko haize-instrumentuak orkestra akonpainamenduari batzen hasten zaizkio. Lehen zatiaren bukaeran, bigarren ahapaldira igarotzeko pasartean eta tenorra berriz hasi baino lehen, harpa baino ez da geratzen. Barkarolaren kasuan, txirula eta piccola duoan hasten dira, eta sarrera amaitzean eta 1:15ean duoa hasten denean, harpa agertzen da. Harpa orkestra-musika ugaritan egon ohi da. Baina bi kasu hauetan argi eta garbi entzun daiteke. Sarri, bere soinuaren tinbrea eta bolumen urria direla-eta, gainerako instrumentuen artean ezkutatuta geratzen da.

2.) Bi duoek antzekotasunak dituzte. Egiturari dagokionez, zertan dira berdinak?

Bi duoek doinu bat aurkezten dute abeslari bakar batekin eta geroago beste bat batzen zaio. Bi kasuetan, musika garatzen da amaieran abesti nagusia bi ahotsekin errepikatzen den arte.

3.) Aldeei dagokienez, nagusia bi ahotsen arteko harremanean dago. Azal zenezake labur ezberdintasun hori? Aurkitzen duzu besterik?

Alde nagusia abeslarien txandakatzean dago. Perla-arrantzaleen duoak batez ere ahapaldi-errepika egitura bati erantzuten dio. Ahapaldia abeslari batetik bestera igaroz doa, errepikan biek batera egiten duten bitartean. Barkarolan, hasierako esaldia izan ezik, bi ahotsek duoan abesten dute denbora guztian. Egia da ez dutela gizonezkoen duoan egiten duten modu berean egiten: tenorrak doinua eraman eta baritonoak nota baxuagoekin laguntzen dion bitartean, barkarolan bi ahotsak elkarri galdezka eta erantzunez doaz motibo berberen bidez.

4.) “*Perla-arrantzaleak*” duoaren erdialdean aurretik ikusi dugun eta musika aldaketarekin bat datorren musika idazketa bat agertzen da berriz. Zein?

Berriz ere doinu pasarte bat eten egiten da zati errexitatu batekin, kasu honetan “Fausto” operako bitxien arian baino askoz ere argiago ikusten bada ere. Musika akonpainamendua aldatu egiten da ustekabean eta bi abeslarien esaldiak ez dira duoaren gainontzekoan bezain melodikoak.

5.) Ausartzen zara lau pertsonaien abeslarien ahotsak asmatzen?

“Perla-arrantzaleak” lanean tenorrek Nadirren papera jotzen du, nota altuak abestuta, eta baritonoak Zurgarena, normalean beheko notetan. Barkarolan, sopranoa Giuletta da eta mezzosopranoa Niklausse. Bitxia da duoa mezzosopranoa hasten dela abesten, eta ez sopranoa.

Bazenekien...

-...agertokian hondartzak eta palmondoak ikus daitezkeen opera bakanetarikoa dela Zeilan ohian (egungo Sri Lankan) gertatzen delako?

-...XIX. mendeko Europako gizarteak Ekialdeko gai eta istorio exotikoekiko zuen zaletasuna kultur adierazpen ugarian islatu zela? Gizarte klase aberatsagoen arteko bidaiak eta esploratzaileen bidaiak handiak hedatu egin ziren literaturan, pinturan, eskulturan eta abarretan.

-...*barkarola* hitza Veneziako gondolariek abesturiko abesti herrikoi bat izendatzeko erabiltzen dela? “*Hoffmanen ipuinak*” lanean barkarolak Giulettaren istorioan sartzen gaitu, Venezian gertatzen dena.

Gogoratuko duzu...

- Barkarola
- Duoa, hirukotea, laukotea
- Kontzertantea



5. JARDUERA. GONAK ETA PRAKAK (21. orrialdea)

Kokatzeko

Gogoratuko duzu opera, benetan, abesturiko antzezlanak dela. Antzerkiaren tradizio ugari jasotzen ditu, eta horrela, korapiloak, iruzurrak, trikimailuak, ez direna diruditen gauza eta pertsonak, ezinezkoak direla dakigun arren ezbairik gabe onartzen ditugun egoerak... ikusten ditugu. Tradizio hauetariko bat emakumeak gizonezkoen paperak egiten ikustea da. *Ez dugu ahaztu behar Shakespearen garaian, Isabel I. erreginaren Ingalaterran, oso gaizki zegoela ikusita gizartean emakume bat agertokira igo eta “antzeztea”, “behar bezalako” emakume bati inola ere ez zegokiona. Badirudi ez zegoela arazo hori gizonekin. Ezbairik gabe, neurriaren izaera matxistak ondorio barregarriak izan zituen. Beste herrialde batzuetan ondo ikusten zen obra mota jakin batzuetarako, komedietarako (ikus Lope de Vegaren edozein lan), kasu. Egia da, ordea, tradizio hau mantendu zuten herrialdeetan benetako iraultza izan zela emakumeek agertokia zapaltzea. Eta, hasieran ikusle-kopuruak ere nabarmen egin zuen gora.*

Musikagileek arrazoi ezberdinak direla-eta jarraitu dute tradizio honekin. Batetik, operaren argumentuan pertsonaia nerabeak agertu izana, eta euren ahotsak nahiko antzekoak izatea, behintzat, mutilen ahotsa aldatu arte; bestetik, *castratiak* aurkitzeko egungo zailtasuna. *Castratoa* hainbat mendetan zehar egon zen abeslari mota bat zen, ebakuntza kirurgiko baten bidez emakumezkoaren ahotsaren antzekoa lortzen zuena, baina gizonezkoaren gorputzak ematen zizkion gaitasun fisikoak baliatuta. Azkenik, pertsonak kontrako sexuak zeramatzan arropekin mozorrotuta ikustea erronka ikaragarria zen garaiko gizarte arauetara zegokienez. *Puntu honetan eliza katolikoaren oso antzinako debekua gogoraziko dugu, emakumeek elizan abesteko debekua, hain zuzen. Debeku horrek koruetan hainbeste ume egotea izan zuen ondorio, emakumezko erregistroaren nota altuak abesteko gai zirelako. Kontratenor edo sopranistek, kontralto edo soprano baten moduan, hurrenez hurren, abestu ahal zutenek, ahotsaren falsettoa emaitza bera lortzeko baliatzen zuten gizonezko abeslariak zirenek ez zuten garrantzi berezirik izan, nahiz eta zalantzarik gabe esan dezakegun gaur egun ere oraindik ezin hobeto garatzen dutela euren lana, bereziki musika errenazentista eta*

barrokoan, bai eszenarako, bai hortik kanpo. Baina operara joan zitezkeen gizarte klaseen arreta bereganatu zutenak castrattiak izan ziren. Hasieratik eurak zikiratzeari buruz zegoen zatiketa morala areagotuz, joan zen mendeek aurrera egin ahala, eta XIX. mendean elizak jarduera hori espresuki debekatu zuen, bera izan bazen ere gehien sustatu zituenetariko bat. Bitxia bada ere, nahiz eta castrattiek agertokian emakumezkoen paperak egin zitzaizketen, egia da gizonezkoen paperak halako ahots ezaugarri miresgarriekin egin ahal zituztelako izan zirela hain estimatuak. Verdik ere, bere Requiem mezaren estreinaldian, XIX. mende bete-betean, mozarroetara jo behar izan zuen koruko emakumeek bere lana abestu zezaten. Agintariek beranduegi deskubritu zuten trikimailua, kontzertua hasita zegoela, eta entzun egin zuten.

Entzungo duguna

Wolfgang Amadeus Mozart – FIGAROREN EZTEIAK – I. ekitaldia –Cherubinoren aria: *“Non so più cosa son, cosa faccio”*.

Kontatzen duena

“Figaroren ezteiak” lehen aipatu dugun *“Sevillako bizargina”* lanaren jarraipena da, orain zinemetan estreinatzen diren filmen bigarren zatien antzera. Figaro bizargin ohia Almaviva kondearen zerbitzupuan dago orain, eta kondeak Susanna emaztegaia kendu ez diezaion saiatu beharko da. Cherubino ere kondearen zerbitzupea dagoen morroia da eta agertokian kondearengandik ihesi agertzen da, kondeak zerbitzari bat gorteiatzen harrapatu baitu. Cherubinok bere sentimenduen inguruan hitz egiten digu, eta ez dirudi oso argi dituenik. *Aurreko “Sevillako bizargina” operan Figarok ezer eskatu barik laguntzen zion kondeari; oraingoan, ordea, elkarren etsaiak izango dira Susanna dela-eta, nahastez eta bata besteaz mozarrotzen diren pertsonaiez beteriko argumentuaren baitan.*

Proposamena

Hitzen Inauteria (22. orrialdea)

Hurrengo hitz-zerrendetan badago bat gainerakoekin loturarik ez daukana. Jakingo zenuke esaten zeintzuk diren eta zein den horien arteko harremana?

Kondea	Mutila	Bizarra	Detergentea
Markesa	Andrea	Ileordea	Maskara
Enbaxadorea	Morroia	Laka	Makillajea
Dukea	Zerbitzaria	Ogia	Mozorroa

Erantzunak:

- *Enbaxadore ez da noblezia titulu bat, kargu bat baizik.*
- *Andrea da beste batzuentzako lan egiten ez duten pertsonak izendatzen dituen bakarra.*
- *Ogia da Figaroren, operako protagonistaren, lanbidearekin zerikusirik ez duen hitz bakarra.*
- *Detergentea izan ezik, beste objektu guztiak norbaiten benetako nortasuna ezkutatzeko erabiltzen dira.*

Asmatuko duzu? (22. orrialdea)

Cherubino entzun ondoren, erantzun zenitzake galdera hauek?

- 1.) Deskriba zenezake musikaren izaera? Azkarra edo motela den esatea baino gehiago da. Uste duzu barea dela? Pertsonaia urduri dago?

Ez badakizu, saiatu asmatzen, abestian agertzen diren hitz hauek irakurrita:

sua – izotza – kolorez aldatu – taupadaka aritu – maitasuna – esna – amesten

Ariak Cherubinok Barbarinagatik duen maitemina deskribatzen duenez, musika oso aztoratua da, pertsonaiaren sentimenduen isla xehea izatearren.

2.) Irudikatzen duzu emakume abeslaria mutilez jantzita? Nolakoak uste duzu izango direla bere keinuak? Eta bere antzezpena?

Pertsonaia morroi gazte bat da; izaera horri, garaiko pentsamenduaren arabera, emakumezko ahotsa zegokion. Bere keinuak oso ausartak dira, ausardi handia adierazten dute. Bere antzezpena nahikoa neurrizkoa izan behar da, umorera iritsi ez dadin. Bera ere maitatua dela sentitu nahi duen eta egoerak gainditzen duen pertsonaia etsi batek abesten du.

3.) Musikari dagokionez, alderik aurkitzen duzu orain arte entzundakoarekin? Deskriba zenitzake? Orkestran instrumentu gehiago edo gutxiago daudela iruditzen zaizu?

Orain arte entzun dugun operako musika ia guztia XIX. mendekoa izan da, opera erromantikoan erromantikoena (Rossini eta bere "bizargina" salbuespena dira, bel cantista operaren baitakoa delako). Hala ere, Mozarten musika aurreragokoa da, aldi klasikoko opera. Arretaz erreparatzen badiogu, orkestra zertxobait txikiagoa izan ohi da, hari-instrumentuak dira ugarienak, zurezko haizekoak apur bat lagunduta (txirulak, oboeak, klarineteak, fagotak). Idazketa hau, oro har instrumentuen berezko bilakaera uneari dagokio. Hari-instrumentuak salbuetsita, klasizismoan hasiko dira gainerako haize eta perkusio-instrumentuen kontzepzio eta teknikan izugarritzko aurrerapenak gertatzen, euren maila gorenera Erromantizismoan iristeko, bilakaera horri esker orkestrako ia edozein instrumentuk egin ahal izango baitu bakarlariaren papera edozein obratan.

Bazenekien...

-...*"Hoffmanen ipuinak"* laneko barkarola aurretik Giulettarekin abestu zuen Nicklausse pertsonaia gizona dela? Zehazki, Hoffmanen lagun bat, opera guztian zehar laguntzen diona, baina mezzosoprano batek antzezten duena.

-...operak oinarri izan zuen antzezlanak bere garaian debekatu egin zela nobleziaren pribilegioak kritikatzeko zituelako?

-...Cherubinoren nortasunaren jokoa bikoitza dela? Cherubino gizonarena egiten duen emakumea da. Baina operako une jakin batean Cherubino emakumez mozorrotzen da, beraz, emakumearena egiten ari den gizonarena egiten duen emakumea da. Hau nahastea!

Gogoratuko duzu...

- Castratti
- Ahots aldaketa
- Gizarte arauak



6. JARDUERA. OPERAK ETA OPERAK (25. orrialdea)

Kokatzeko

Orain arte agian pentsatu duzu opera mota bakarra dagoela, non denek geratu gabe abesten duten eta istorioa, gatazkaz beteta, gaizki bukatzen den, beti ez bezala. Normalean hori da opera serioa deritzona. Hala ere, ez da arau orokorra, ez horixe! *Badago alde opera (serioa) eta opera handiaren artean. Azken hau gai tragikoa duena izango litzateke; bertan argumentua oso garrantzitsua da, bai kontu historikoak, gertatu direnak edota zibilizazio handiei buruz hitz egiten dutenak, hartzen dituelako, bai alegiazko pertsonaiek, antzinako jainkoek eta abarrek hartzen dutelako parte. XIX. mendean, aurrekoari kontrajarrita, opera egiatia jaio zen. Korronte hau benetan zaharkitua zegoen tradizio baten aurreko erreakzio gisa jaio zen. Opera egiatian zama dramatikoak funtsezkoa izaten jarraitzen badu ere, pertsonaiak arruntak dira, behintzat euren gizarte maila baxuagoari dagokionez, eta gertatzen zaizkien istorioak, izugarriak izanda ere, erraz ezagut daitezke eta hurbilagoak zaizkio publikoari, euren egunerokotasunagatik.*

Badago beste opera mota bat, istorioa komikoa, dibertigarria eta oso korapilatsua duena, idatzi ziren garaiko errealitatetik oso hurbil zeuden gaiak izaten dituen eta abesturiko zatiak umorez eta zentzu bikoitzeko esaldiz betetako elkarrizketekin txandakatzen dituen. Herrialdearen arabera izen ezberdina edukitzen du: opera bufoa Italian, opera komikoa Frantzian, eta egon ziren oso antzeko beste genero batzuk ere, opereta (Alemania eta Austrian) eta zartzuela kasu (Espainian). *Nahiz eta or ohar zartzuelak bai operetaren, bai opera komiko frantsesaren izaera konpartitzen duen, nahiko arrunta da zartzuela “genero txikiarekin” identifikatzeko akatsa. Izen hori hedapen aldetik oso txikiak diren obrei baino ezin diegu eman, normalean ekitaldi bakarrekoak, argumentua benetan kostunbrista eta komikoa dutelako. Zartzuela askok gainditu egiten dute definizio hau, dela euren argumentuagatik, funtsean dramatikoa delako, nahiz eta pertsonaia komikoak egon, dela euren neurriagatik. Beraz, genero txikiaren baitan dauden obra guztiak zartzuelak dira, baina zartzuela guztiak ez dira genero txikiaren*

barruan sartzen. Aparteko kasua musikalak dira, kultura anglosaxoikoak. Obra dramatikoak edo komikoak izanda ere, beti txandakutzen dituzte hitz egindako testua eta saio itxietan abesturiko pasarteak. Beranduago haietariko asko zinemarako moldatu izanak oso ezagunak egin ditu herri mailan.

Denborak aurrera egin ahala, istorioetako gaiak bilakatu egin ziren, ondorioz, opera serioaren antzeko istorioak kontatzen zituzten “*opera komikoak*” zeuden, beraz, “*komiko*” hitza hitz egindako zatiak zeuden edo ez bereiztera mugatu zen. *Kasurik ezagunena, zalantzarik gabe, “Carmen” da, Bizeten musika duen Merimeeren libretoaren gaineko tragedia, eta bere inguruan gauza asko esan litezke, baina inolaz ere komikoa dela. Urte batzuetatik hona jatorrizko elkarrizketak berreskuratzeko joera dago eta beranduago gehitu zitzaizkion errezitatiboak ezabatu egiten dira.*

Entzungo duguna

Daniel-François Aubert – FRA DIAVOLO –I. ekitaldia - Hirukotea: “*Bravi, bravi, bravi!*”

Gaetano Donizetti – IL CAMPANELLO – Duoa eta azken kontzertantea: “*Mio signore venerato*”

Kontatzen dutena

“*Fra Diavolo*” operak, abenturazko eleberri moduan, Michelle Pezza benetako pertsonaiaren bizitza kontatzen du, XVIII. mendearen bukaeran Italian frantsesen kontra borrokatu zuen bidelapur italiarrarena. Nekazari aberats baten emaztegai den Zerlinarekin ezkondu ahal izateko, Lorenzok Fra Diavolo bidelapur ospetsua harrapatzea eta diru-saria kobratzea erabakitzen du. Bikote ingeles noble bat agertzen da, bidelapurrak lapurtu egin diela esanez, eta Lorenzo haren bila abiatzen da. Lapurturiko bitxiekin itzultzen da eta sari bat ematen diote, iritsi berria den markes batek ikusten duen eszena. Inork ez daki benetan Fra Diavolo bera dela, mozorrotuta. *Hau Lorenzori mendeku hartzen saiatuko da bere adiskideak hiltzeagatik eta Zerlina limurtzen ahaleginduko da, horren ohorea zalantzan jartzeko. Azkenean, duela batek erabakiko du istorioa, Fra Diavoloren heriotzarekin, baina lehenago Zerlinaren errugabetasuna aitortuko du.*

“*Il Campanello*” Annibale botikari zaharraren inguruko oso istorio dibertigarria da. Bere diruari esker, Annibalek bera baino askoz ere gazteagoa den neskatila batekin ezkontzea lortu du. Neskatilaren mutil-lagunak, ahalik eta bitxien moztortuta, ezteigau osoan zehar bisitatuko du botikaria, buruan helburu bakarra duela: Annibale jaunak bere maitearekin lo egitea ekiditea, azkenean lortu egingo duena. *Botikari zaharrak ezkontza-eginbideak bete gabe joan beharko du, eta Enrico gazteak libre ikusiko du bidea bere neskalagun ohia berriz berarekin maiteminarazteko.* Izenburua beste paziente bat agertzen den bakoitzean entzuten den kanpaiagatik da.

Proposamena

Hitz debekatuak (26. orrialdea)

Banatu gela taldetan, atazan erabilitako kontzeptuekin lotutako hurrengo hitzak asmatu beharko dituzte. Talde bakoitzak bere ordezkaria hautatuko du, eta gainerakoei asmatu beharreko hitzaren gaineko gakoak emango dizkie. Era berean, ezin izango ditu zerrendan agertzen diren hitzak erabili, ezta sustrai bereko antzekoak ere.

Komedia	Drama	Abentura	Balleta
	<u>Erabili ezin diren hitzak</u>		
Barrea	Malkoa	Gertakizuna	Dantza
Pozik	Negar egin	Deskubritu	Agertokia
Kilimak	Goibel	Bidaia	Itzulipurdia

Konponbide erraza antonimoak erabiltzea izan daiteke.. “...ren kontrakoa”

Asmatuko duzu? (27. orrialdea)

Musika-zatiak arretaz entzun ondoren, esan zenezake:

1.) Zein ahots motak abesten dute “*Il Campanello*”-ko duoa? Zein dagokio Enricori, mutil gazteari, eta zein Annibale jaunari, botikari zaharrari?

Enricoren papera baritono batek abesten du eta Annibalena baxu batek. Tradizionalki, pertsonaia gazte eta heroikoak ahots zertxobait altuagoi ematen zitzaizkien, normalean tenor bati. Adin gehiagoko ahotsak ahots baxuagoek abestu ohi dituzte,

gizonezko zein emakumezkoenak. Musikagileak tenorrik nahi ez badu, tesituraren arabera berehala beherago dagoen ahotsera jo ohi du prozedura beraren bitartez.

2.) Ezagutzen duzu Enricok abesten duen zatiaren antz apur bat duen gure garaiko musika estilorik?

Egungo musika “herrikoiko” estilo ugari opera errezitatiboaren eta parlatoaren prozedura ere moldatu dute, bereziki pop, jazz eta beste musika batzuetan. Bestelako kasua rapa izan liteke, “Ni Fu, ni Fa#” lanean aipatuko den estiloa, berez musika oinarri erritmikoaren gaineko errezitatu errimatua baita. Beste maila batean, eta agian operaren mundutik hurbilago, musikaletan ditugu adibide anitz, kultura anglosaxoiaren berezko obra eszenikoak, non oso ohikoa den musika pasarteak hitz egindako beste batzuekin txandakatzea, batzuetan baita hitz bakarrarekin ere. Asmoa argia da kasu guztietan: hitz horrek edo horiek testuinguruan esangura berezia izan dezaten eragitea.

3.) Jakingo zenuke esaten zenbat pertsonaia ezberdinek abesten duten azken kontzertantean?

Hiru pertsonaia nagusiak dira azken kontzertantea abesten dutenak, koruaz gain: Enrico, mutil-lagun ohia; Annibale, botikari aztoratua; eta emazte gaztea.

Erreparatu, gainera...

-...hirukotean dagoen nahasmenari. Pertsonaia bakoitzak testu ezberdin bat abestu behar du, denak ari direlako aldi berean hizketan.

-...Enricorena egiten duen abeslariaren zailtasunari testu osoa esateko.

-...opera baten bukaeran pertsonaia guztiak, koruarekin batera, abesten jarrita lortzen den musika efektuari.

Bazenekien...

-... “*Fra Diavolo*”-ri buruzko film ugari daudela, horietariko bat Laurel & Hardyk, “Lodia eta Argala” ospetsuek, protagonizatuta?

-...benetako *Fra Diavolo* azkenean atxilotu eta heriotzara kondenatu zutela egin zituen delitu guztiengatik?

Gogoratulo duzu...

- Opera handia
- Opera komikoa
- Zartzuela
- Opera bufoa
- Opereta

GLOSARIOA

Jarraiki, hitz eta esamoldeen hiztegi txiki bat duzue, zalantzarik gabe gida hau erabiltzean baliatu egingo duzuen eta ikasleei lagungarri izan dakiekena.

Baxua: *Pertsonen ahots guztietatik nota baxuenak abesten dituen gizonetzko ahotsa.*

Baritonoa: *Tarteko gizonetzko ahotsa, nota baxuak nahiz altuak abesteko gai, tenor edo baxu bat iristen den muturretaraino iristen ez bada ere.*

Castratoa: *Bere sexu-organoak erauzi ostean ahots-erregistro harrigarria burutu zezakeen gizonetzkoa, bere fisionomiari esker.*

Kontraltoa: *Emakumezko ahotsik baxuena.*

Kontratenorra: *Falsettoari esker normalean kontraltoek abesten dituzten notak abesten dituen gizonetzko abeslaria.*

Hariak: *tradizionalki, arku bidez igurtziriko hari-instrumentuak jasotzen dituen orkestra-familia, biolinak (lehenak eta bigarrenak), biolak, biolontxeloak eta kontrabaxuak hartzen dituena. Orkestra barrokoetan talde horren baitan egon ziren beste instrumentu aitzindari batzuk, zango-biolak edo braccio-biolak, kasu.*

Instrumentu bitxiak: *Orkestra batean, harpa edo pianoa, kasu, tradizionalki ez zaizkio inolako orkestra-familiari lotu, orkestran berandu sartu baitziren, XVIII-XIX. mendeetan. Biak dira hari-instrumentuak; harpa, igurtziriko harikoa, pianoa, kolpekatu-rik harikoa.*

Mezzosopranoa: Nota altuak, baina baxuak ere bai, abestu ditzakeen emakumea izendatzeko termino italiarra. Mezzosoprano onen ezaugarri bat da baxu eta altuen artean duten aparteko oreka.

Perkusioa: Instrumentu-kopuru handia biltzen duen familia, batzuek soinu zehatzak egiten dituzte, tinbalek, bibrafonoak, xilofonoak edo zelestak, kasu; beste batzuek, ordea, zehazgabeak sortzen dituzte: triangeluak, dunbalak, danborrak, gongak, txindatek, kriskitinek eta abarrek.

Sopranista: Falsettoari esker normalean sopranoek abesten dituzten notak abesten dituen gizonezko abeslaria.

Sopranoa: Tesiturari dagokionez, notarik altuenak abesten dituen emakumezko ahotsa, eta normalean erregistro horretan aritzen dena.

Tenorra: Notarik altuenak egiten dituen gizonezko ahotsa eta normalean erregistro horretan aritzen dena.

Zurezko haizea: Tinbre zehatza ematen dien zurez egindako haize-instrumentuko orkestra familia, hemen txirula eta piccola, metalez egindakoak, beti sartzen badira ere. Gainera, badaude oboeak, klarineteak, fagotak eta kontrafagotak.

Metalezko haizea: Metalez egindako instrumentuak dituen orkestra familia, zurezko haize-instrumentuek baino indar gehiago izan ohi dutenak: tronpetak, tronpak, tronboiak eta tubak.

Ahots zuriak: Emakume edo ume abeslarien ahotsekin lotuta erabilitako esamoldea, bakarrik mota honetako ahotsek osaturiko taldeak barne.

Ahots baxuak: Gizonezko ahotsekin lotuta erabilitako esamoldea, bakarrik mota honetako ahotsek osaturiko taldeak barne.